

LEXIKOA

Hitz eratorpena

Gogoratu hitzei aurrizkiak eta atzizkiak gehituz beste hitz batzuk sortzen direla.. Atzizkia edo aurrizkia gehituz sortutako hitzari **hitz eratorria** deritzo eta hitzak sortzeko bide horri **hitz-eratorpena**.

Adibidez: ikusi→ ikusgarri→berrikusi→...



Jarduerak

1. Banandu hitz eratorri hauetako aurrizkiak eta atzizkiak.

Adibidea : saiheski **saihes - ki**

desegin

mahasti

birziklatu

egile

azpimarratu

adostasun

pozgarri

2. Lotu hitzak eta atzizkiak, eta sortu hitz eratorriak.

herri

-tasun

eder

-gile

hitz

-ki

txerri

-tar

antzerki

-tun

akats

-tegi

3. Aukeratu esaldi bakoitzari dagokion hitz eratorria.

barazki – igogailu – ikasgai
elurte - sinesgaitz



- Asteburuan egin duen _____ anabasa handia eragin du errepideetan.
- Argia joan da eta _____ gelditu gara, ez gora, ez behera.
- Egunero jaten ditut _____ eta fruta.
- Nahiko _____ da, baina zeuk badiozu, horrela izango da.
- Ikasturte honetan bi _____ gehiago ditugu.



4. Sortu hitz eratorriak atzizki hauekin, eta idatzi esaldi bat bakoitzarekin.

-tzaile: _____

-garri: _____

-tsu: _____

-lari: _____